

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala****98. zenbakia****Data 2003-05-27****9978 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA**

BEIZAMAKO UDALA

**2003 urteko landa eta hiri ondasun higiezin errolda. Jende aurreko erakusketa.****BEIZAMAKO UDALA***Iragarkia*

Gipuzkoako Foru Diputazioak 2003 ekitaldirako burututako Landa eta Hiri izaerako Ondasun Higiezin gaineko zergen urteko erroldak jaso direlarik, jendaurreko informaziora ateratzen dira, aipaturiko zergak arautzen dituen uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 21. artikuluko 2. Zenbakian xedatutakoa betez:

*a) Erakutsita dagoen lekua:* Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzailetzan.

*b) Aztertze epea:* Hamabost lanegunetakoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitara eman eta ondorengo lanegunetik zenbatzen hasita.

*c) Erreklamazioak jartzeko epea:* Hamabost lanegun, b) atalean adierazten denaren arabera kontaturik.

*d) Errekurritzen zaion lekua:* Gipuzkoako Foru Diputazioa, horren esku utzi bait da zergen kudeaketa.

*e) Erreklamazioak aurkezteko tokia:* Udaletxeko sarrera erregistroa.

**Beizama**, 2003ko maiatzaren 14a.—Idoia Leonet Azkune, Alkatea.

(24) (5651)